

EUSKAL PRESOK. Mayor gaiaz aritu zen Foxekin azken bisitan

JOXE LACALLE

Lazaro Galarzaren arreba eta Joseba Agudo abokatua atzoko prentsaurrekoaren aurretik.

Mexikok Galarza preso estraditatu dezan presio politikoak salatu dituzte

Mexikoko epaile batek babesa agertu dion arren, hango gobernuak erabaki behar du

Alberto Barandiaran | IRUÑEA

Lazaro Galarza euskal errefuxiatuaren egoeraren inguruan informazioa jaso eta Mexikoko Gobernuaren aurrean gestioak egiteko, ostiral honetan abiatuko dira bertara Joseba Agudo Manzisidor abokatua eta Rakel Peña EHko kidea. Agudok atzo bertan salatu zituen euskal presoaren estradizio prozesuaren inguruan Espainiako Gobernuaren presioak, eta nabarmendu zuen bertako epaile batek Galarzari babesa agertu eta hurrengo egunetan Jaime Mayor Oreja Espainiako Barne Ministroak gaia tratatu zuela bertako presidente Vicente Foxekin izandako bileran. «Justizia eginbidea oztopatzen ahalegintzen ari dira, Espainian dauden mekanismoak esportatzen alezia», salatu zuen Agudok.

Egoeraren berri emateko Agudok, errefuxiatuaren senideekin batera, Iruñean eman zuen prentsaurrekoan adierazi zuenez, Galarza 1990an herbesterratu zen Mexikora, eta han bizi zen harik eta joan den maiatzaren 29an bertako polizia atxilotu zuen arte.

Entzutegi Nazionalen epaile Garzonek Lekunberriko Guardia Zibilaren etxearen aurka

JOSEBA AGUDO

Lazaro Galarzaren abokatua

«Justiziaren eginbidea oztopatzen ahalegintzen ari dira, hau da, Polizia ordezkatzeko eta gaitetik pasatzen»

gertaturiko atentatuaren auzian Galarza inplikatu zuen, eta Espainiako Gobernuak 1992an Mexikori Galarza estraditatzeko eskatu zion, orduan Galarza non zegoen jakina ez zen arren. 1994ko apirilaren 18an Mexikoko Prokuradoreak (fiskalak) eskatu zuen Galarza atxilotzeko eta estraditatzeko. Orduan ez zuten atxilotu baina ia bai. Espainian auzia epaitu zenean, baina, Galarzaren izena ez zen agertu eta berari leporatu delitua beste bati egotzi zioten.

Estradizio prozeduraren inguruko gorabeherak

Hala, atxilotu zutenean estradizio prozedura bideratu zen, eta joan den irailaren 13an estradizioaren aldeko ebazpena eman zuen Mexikoko epaile batek. Ondoren, Kanpo Harremanetarako idazkariak ere estradizioa

onartu zuen. Horren aurka helegitea aurkeztu zuen orduan abokatuak, eta urtarrilaren 30eko erabaki baten bidez, bertako epaileak babesa agertu zion Galarzari. Horretarako oinarria izan zen Espainia eta Mexikoren arteko estradizio hitzarmenaren aldaketa eman baino lehenagokoa dela eskaera. Izan ere, 1995ean aldatu egin zen Espainia eta Mexikoren arteko estradiziorako hitzarmena, eta, ondorioz, prozesuaren kontrako frogak jada ez ziren beharrezkoak izango estradizioa onartzeko. Galarzaren eskaera 1994ean egin da, eta epaileak argudiatu du ez direla beharrezko frogak aurkeztu.

Orain 10 bat eguneko epea du Kanpo Harremanetarako idazkariak bere erabakia plazaratzeko. Erabakia estradizioaren kontrakoa balitz Galarza askatuko lukete eta aldekoa balitz, defentsak helegitea aurkezteko aukera du. Bitartean Galarzak Mexikoko Distrito Federaleko Reclusorio Norte izeneko presondegian jarraitzen du.

Atzoko prentsaurrekoan, Lazaro Galarzaren alde Larraun eskualdean egindako hainbat mobilizazioaren berri eman zuten senideek, eta presoaren askatasunaren alde ehunka sinadura jaso dituztela jakinarazi zuten. Halaber, Mexikoko familiaren sustengu ekonomikorako hainbat ekitaldi ere egin dira.

LABURREAN

Haikak ibilaldiak egingen ditu Lapurdi eta Nafarroa Beherean «hiri hotza baliatu» kanpainan

Haika gazte mugimenduak martxoaren 11 eta 18ko bozen inguruan, hiru ibilaldi antolatu ditu Lapurdi eta Nafarroa Beherean. Gaur Ziburutik Senpererat oinez egingen dute, 9:30tan abiatuz. Bihar, Basusarritik 13:30tan abiatuko dira Uztaritzera. Ostiralean, Donapaleutik Donibane Garazira autoz egingen dute, Donapaleuko Airetik abiatuz 9:30tan.

Doneztebe eta Elizondon egin erasoak errebindikatu dituzte

Joan den asteburuan Nafarroako Elizondo eta Donezteben eginiko erasoak errebindikatu zituen atzo pertsona batek EGUNKARIArekin egin dei anonimoan. «Espainiako eta Frantziako estatuek Euskal Herriaren aurka daramaten errepresioaren kontra» eginiko erasoak izan zirela adierazi zuen deitzaileak.

Emakume eta gizon baten argazkiak egin dituzte atentatuarekin lotura dutelakoan

Ustez Madril izaniko atentatuan parte hartu zuten gizon eta emakume baten argazkiak robotak egiten ari da Polizia. Argazki horiek egiteko lekukoak testigantzak ari dira hartzen oinarritzat. Lekuko ugarik esan zuten ustez iheslarien autoa lehertu baino lehentxoago bi pertsona ikusi zituztela korrika ihesi.

‘Sokoa auziko’ epaiketa apirilaren 4ra arte atzeratu dute

Entzutegi Nazionalen Sokoa auzia epaitzen ari den gelak apirilaren 4ra arte atzeratu du epaiketa, Antton Etxebesteren inguruan eskaturiko informazioak jasotzeko denbora izateko.

ESTATUTUA

Transferentzien negoziazioari heltzeko eskatuko Jaurilaritzak Madril

Felix Iriarte | GASTEIZ

Transferentzien negoziazioari berriro ekin nahi dio Jaurilaritzak. Hori dela eta, Gobernu Kontseiluak ebatzi du dei egitea Administrazio Zentralari EAeri falta zaizkion eskunduntzak hitzartzeko. Estatutuak aurreikusten duen transferentzien negoziazioa oraindik orain geldirik dago, nahiz eta Eusko Jaurilaritzak pasaden urteko maiatzaren hitz egitea eskatu zion Madrilgo gobernuari.

Madrilen erantzuna ezezko borobila

Ezezko biribila eman zion Jesus Posada orduan Administrazio Publikoetarako ministroak. Idoia Zenarruzabeitia lehendakariordeari gutun bat helarazi zion, eta, bertan zioenez, ez zen unerik egokiena negoziazioari heltzeko. Hala erantzun zion Jesus Posadak, Josu Jon Imaz Jaurilaritzako eledunak atzo prentsaurrean adierazi zuenez: «Ezin dizut ezkutatu Euskadiko egoera politikoak elkarrizketa eragotzi dezakeela».

Atzo ere antzera mintzatu ziren Kongresuan EAJk eta EAK egindako galderari erantzuteko. Erantzun honek agerian uzten du, Imazek esan duenez, Madrilgo Gobernuak ez duela Estatutua bete nahi. «Onartezina da, esaten ari direlako ez dutela Estatutua bete nahi. Estatutua dela eta ez dela, ahoa betetzen zaie, baina gartzeko orduan oztopoak jartzen dituzte», salatu zuen Eusko Jaurilaritzako eledun Josu Jon Imazek.

Guztira, lau transferentzia negoziatu nahi ditu Jaurilaritzak: lana, enplegu eta heziketari buruzko legearen ejekuzioa; espetxe administrazioa; ikerketa zientifikoa eta errepideak.

ALDI BATERAKO KONTRATUA MUSEOTAKO TEKNIKARIA

Arrasateko Zerrajerai Saiolaneke eraikinean erakusketa industriala martxan jartzeko, urtebeterako, museo industrialean aditua den teknikari bat kontratatu nahi du:

Aurkezteko, baldintza hauek bete behar dira:

- Euskara: 3. HEren pareko jakintza.
- Erdi mailako edo Goi mailako unibertsitate titularen jabe izatea.
- Industria museoak abian jarri edo kudeatzearekin lotutako lan jardueretan gutxienez urtebeteko esperientzia egiaztatzea.

Interesatuak Arrasateko udaletxera etorri behar dira otsailaren 26an, goizeko 10etan, euskara proba eta praktikoa egiteko. Hautaketa prozesua arautzen duten oinarri-arauak Arrasateko udaleko Pertsonal sailan jaso daitezke.

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON

Pertsonal Saila ■